

LAN BATZORDE IREKIAK**TALDEA****OBRA BATZORDEA****IRAUPENA****1.5 ordu****EGUNA****2018-06-12****GAIA****DEIALDIA****PARTE HARTZAILEAK**

Endika Igarzabal	Iñaki Etxezarreta	Anartz Agirre	Aratz Igarzabal
Nikolas Igarzabal	Iñaki Maiz	Felix Maiz	Xabat Goikoetxea
Jose Ramon Peñagarikano	Asier Osinalde		

ERABAKIAK

GAIA	EKINTZAK	ARDURA DUNA	NOIZKO
AZTIRIKO TABERNA	<ul style="list-style-type: none">Datorren astea goaz Jaurlaritzara, arduradunekin bilera bat egitera, ea etxebizitza konpontzeko laguntzarik dagoen.		
BASERRIBIDEAK	<ul style="list-style-type: none">Ez da laguntzarik jaso, puntuazioz ez direla iritsi esan digute.Sendo enpresako arduradunekin joan den astean egin zen bilera bat, batzordeko parte-hartzaileekin batera. Aurrekontua 17.000€koa da.Udalari gauzak asko argituko lizkioke proiektu horrek, herri bide guztien (ez asfaltatuak soilik) diagnostiko bat egingo lukeelako. Proiektu irekia izango litzateke eta herritarrek parte hartuko lukete.Jabetza publikoa edo pribatua definitzeaz gain, bide bakoitzaren erabilera mugatu/erregulatuko litzateke.Proiektua egiteko asmoa agertu da batzordekideen artean, baina urte amaiera aldera jarriko da martxan, eta esan bezala, ia bi urteko lana litzateke.		
MINATAKO BIDEA	<ul style="list-style-type: none">Ez dago berririk. Aldundiak ez dauka oraindik informea eginda.Bitartean, Asfaltos Urretxurekin bilera bat egin da eta zerbaitetan laguntzeko prest leudekeela esan digute, materiala jarriz edo horrelako zerbait.		
OSTATU	<ul style="list-style-type: none">Proiektu bat prestatu da etxe osoa konpontzeko, baina 250.000€-ko kostua luke.Proiektuari beste buelta bat emango zaio gehiago ajustatzeko, gehiegizkoa dela ikusten delako oraingo proiektua. Hala ere, laguntzetara aurkeztu behintzat egitea erabaki da, ea zer lortzen den.		

ALEGI AUZOA	<ul style="list-style-type: none"> • Aste honetan bertan egingo dugu bizilagunekin bilera bat, udalak egin beharreko lanen inguruan. • Autobus geltokia eta bide gorriaren proiektua aurrera doa, eta irail aldera hasiko litzateke. 		
DATOZEN OBRA POSIBLEAK	<ul style="list-style-type: none"> • Ostatuko marrak margotuta daude, beraz, errespetatu! • Orbeldiko bidea aurtengo zatian egiteko asmoa dago. Esan eta esan ari gara, baina egin beharra dago. 		
ESKOLA	<ul style="list-style-type: none"> • Uztailean hasiko da. Diru-laguntza lortu da. 		
ARAU SUBSIDIARIOAK	<ul style="list-style-type: none"> • Azkenaldian hiru gai atera zaizkigu gai honen inguruan: Aztirin etxebizitzak egiteko aukera, Arroa inguruko etxeen banaketa berritzea eta ordenantzen berrikusketa. • Arau guztiak aldatzeak, 3-4 urte eta 100.000€ inguruko kostua edukiko lukete. • Arkitektoak esan digu dauzkagun gaie horiek lantzeko ez legokela arau orokorrak aldatu beharrik, baizik eta aldaketa puntual bat eta plan partzial batekin konpondu litezke Aztiri eta Arroa inguruko gaia, denbora eta diru asko aurreztuz. • Herri mailako bilera bat deitzea komenigarria ikusten da gai hau lantzeko, herriaren etorkizuna baldintzatuko duen zerbait delako. • Bilera, uztailaren 10ean izango da 19:00tan, eta deialdia zabalduko da. 		
UDALETXEKO KOMUNA	<ul style="list-style-type: none"> • Planteamendu orokorrago baten beharra ikusten da, solairu guztia irisgarritasun aldetik legalizatzeko. • 20.000€ko aurrekontua izango luke, baina laguntzarik ezean ez zaio lehentasunik emango. 		
FRONTOI AZPI	<ul style="list-style-type: none"> • Uztailean egiteko asmoa dago. 4000€ko aurrekontua dauka. 		
ESKOLAKO LEHIOAK	<ul style="list-style-type: none"> • Eskolako lehioak aldatzeko aukera aztertzeko, aurrekontu bat eskatu da, eta 107.000€koa izango litzatekeela esan digute. Momentuz baztertu egingo da. 		

Hurrengo bilera: irailak 4, 19:00tan